

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUA. Honen bidez, Salgaien Errepideko Garraioa Modernizatzeko dirulaguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira, 2023 urterako.

DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA por el que se aprueban las bases reguladoras y convocatoria del programa de subvenciones Modernización del Transporte de Mercancías por Carretera para el año 2023.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren xedea Bizkaian aberastasuna eta kalitateko enplegua sortzen laguntzea da, Bizkaiko enpresa arloan lehiakortasun iraunkorra eta nazioartekotzea sustatuz eta, aldi berean, gure lurraldearen garapen orekatua erraztuz. Ildo horretan, estrategia integral bat jarri da abian, bost ardatz estrategikotan oinarritua: ekintzailetza eta azelerazioa; berrikuntza eta lehiakortasuna; erakartzea eta interkonexioa; lurralde-oreka, eta talentua eta ezagutza; hori guztia, balio erantsiko zerbitzuak modu eraginkorrean emateko konpromisotik abiatuta.

La misión del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia es contribuir a la creación de riqueza y empleo de calidad en Bizkaia, impulsando la competitividad sostenible y la internacionalización en el ámbito empresarial de Bizkaia al tiempo que facilitar el desarrollo equilibrado del Territorio. Para ello se ha puesto en marcha una estrategia integral basada en cinco ejes estratégicos: emprendimiento y aceleración, innovación y competitividad, atracción e interconexión, equilibrio territorial y talento y conocimiento; todo ello desde el compromiso de una prestación eficiente de servicios de valor añadido.

Misio horren esparruan, onartu nahi den foru-dekretuaren xedea Salgaien Errepideko Garraioa Modernizatzeko dirulaguntza-programa arautzea da 2023

En el marco de esta misión, el decreto foral que se pretende aprobar tiene por objeto regular el programa de subvenciones Modernización del Transporte de





urterako, eta horren helburua salgaien errepideko garraioaren sektoreko enpresei eta autonomoei ibilgailu astunen flota egokitzen laguntzea da, bai eta sektorearen segurtasuna, bideragarritasuna, digitalizazioa eta iraunkortasuna hobetzea ere.

Helburu hori lortzeko, ibilgailu astunak ustiatzen dituzten enpresa eta pertsona autonomo askoren eskura dauden ibilgailuak hobetzeko eragiketak diruz laguntzen dituen programa bat diseinatu da, errepideetako salgaien garraioa jasagarritasunaren, digitalizazioaren eta segurtasunaren gizarte-erronkekin gehiago bat etor dadin. Tramitazioa arina izan dadin diseinatu da programa, bai eta eskabideak egiteko eta dirulaguntzak eskuratzeko ezinbesteko gutxieneko baldintzak ezar ditzan ere. Horren adibide da epe luzea irekitzen duela eskaerak jasotzeko, baina lehia askeko erregimenean izapidetzen dela, bi hilabete baino gutxiagoko epean osorik eta zuzen dauden eskaera guztiak ebatzi ahal izateko.

Ekonomia Sustatzeko Sailaren 2020-2023 aldiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoak dirulaguntzen lerro bat aurreikusten du Salgaien Errepideko Garraioa Modernizatzeko laguntzarako, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan behar diren kredituak esleitu dira horiek gauzatzeko. Horretarako, beharrezkoa da dirulaguntzoi buruzko araudia ezartzea.

Mercancías por Carretera para el año 2023 cuya finalidad es acompañar a las empresas y personas autónomas del sector del transporte de mercancías por carretera en la adaptación de la flota de vehículos pesados para mejorar la seguridad, viabilidad, digitalización y sostenibilidad del sector.

Para lograr este objetivo se ha diseñado un programa que subvenciona actuaciones de mejora de los vehículos que están al alcance de buena parte de las empresas y personas autónomas que operan vehículos pesados, y que contribuyan a que el transporte de mercancía por carreteras se alinee en mayor medida con los retos sociales de sostenibilidad, digitalización y seguridad. El programa se ha diseñado de forma que la tramitación sea ágil y que imponga los requisitos mínimos indispensables para realizar las solicitudes y para acceder a las subvenciones. Ejemplo de ello es el hecho de que abre un periodo amplio para recibir solicitudes, pero se tramita en régimen de libre concurrencia para poder resolver en un periodo inferior a dos meses todas las solicitudes que sean completas y correctas.

El Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 del Departamento de Promoción Económica prevé una línea de subvenciones con destino al Apoyo a la Modernización del Transporte de Mercancías por Carretera y en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia se han consignado los créditos precisos para hacerlas efectivas, a cuyo efecto se hace necesario establecer su normativa reguladora.





II

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio xedapen honen xede den gaiaren gaineko eskumena, hala ondorioztatzen baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautaketa, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1.d) artikulua modu koordinatuan irakurrita. Lege horretan ezartzen denez, foru-aldundien berezko eskumena da garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko lankidetzaren ematea, arlo horretan gainerako administrazio publikoek dituzten eskumenekin bat etorriz.

Ekonomia Sustatzeko Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 17ko 207/2019 Foru Dekretuak Ekonomia Sustatzeko Foru Sailari esleitzen dio ondoren aipatzen den arloko jarduna: enpresen lehiakortasuna hobetzea, bereziki enpresa txikiena, berrikuntza ardatz nagusitzat hartuta; industria sustatzea —batez ere, Bizkaiko lehentasunezko industria-sektoreak—; jakintzaren arloko zerbitzu aurreratuak indartzea; enpresa txiki eta ertainak nazioartekotzeko prozesua sustatzea; jardura esportatzailea laguntzea, eta enpresen arteko lankidetzaren sustatzea].

III

Foru-dekretu honek betetzen ditu

II

La competencia sobre la materia objeto de la presente disposición corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, tal y como se deduce de la lectura coordinada del artículo 17.2 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y el artículo 36.1.d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, donde se establece que es competencia propia de las Diputaciones la cooperación en el fomento del desarrollo económico y social de acuerdo con las competencias de las demás Administraciones Públicas en este ámbito.

El Decreto Foral 207/2019, de 17 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Promoción Económica, asigna al Departamento de Promoción Económica la actuación en la mejora de la competitividad empresarial y especialmente de las pequeñas empresas, teniendo como eje fundamental la innovación, el impulso a la industria, con especial atención a los sectores industriales prioritarios de Bizkaia, fortalecer los servicios avanzados en conocimiento, impulsar el proceso de internacionalización de las pymes y el apoyo a la actividad exportadora, y la promoción de la cooperación empresarial.

III

El presente decreto foral responde a los





erregulazio onaren printzipioak, zeinak aurreikusten baitira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da; manuok bete egin dira xedapena egin eta izapidetzeko orduan, eta txosten hauek eman dira:

1. Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa
2. Ekonomia Sustatzeko Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
4. Memoria ekonomiko-administratiboa eta erregulazio onaren printzipioei buruzkoa.
5. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
6. Legezketasunari buruzko txostena.

Dekretu honen bidez arautzen diren laguntzak norgehiagokarik gabeko prozeduraren bidez emango dira, beren izaera eta helburua kontuan hartuta; Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20 artikuluan aurrez ikusita dago prozedura hori.

Programa honetan lagundu beharreko jarduketan izaerak zaildu egiten du

principios de buena regulación previstos en los artículos 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, cuyas disposiciones se han observado en su elaboración y tramitación, habiéndose emitido los siguientes informes:

1. Evaluación preliminar del impacto de género.
2. Informe jurídico del Departamento de Promoción Económica.
3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.
4. Memoria económico-administrativa y de principios de buena regulación.
5. Informe de control económico.
6. Informe de legalidad.

Las ayudas reguladas por este decreto foral se otorgarán atendiendo a su naturaleza y finalidad por el procedimiento de libre concurrencia previsto en el artículo 20 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

La naturaleza de las actuaciones a apoyar en este programa dificulta establecer





balorazio-irizpide objektibo eta homogeenak ezartzea, irizpide horiek aztertu eta sailkatu ahal izateko, aurkeztutako eskabideetan ordenatu eta lehentasun-hurrenkera bat ezarri ahal izateko moduan. Dirulaguntzen programa honetan lagundutako proiektuen izaerak epe luzea eskatzen du dirulaguntzak aurkezteko, eta azkar esleitu behar dira, emandako dirulaguntzari esker gauzatu ahal izateko.

Era berean, genero-ikuspegia jaso da foru-dekretu hau prestatzeko orduan, kontuan hartuta zer xedatzen den arau hauetan: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretua, zeinaren bidez generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen baitira (ebaluazio hori 4/2005 Legean dago aurrez ikusita). Ildo horretan, lehen adierazi den bezala, foru-dekretu honen izapidetzean generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena sartu da.

Era berean, kontuan hartu da zer ezarrita dagoen hala maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan (haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira), nola Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzetarako prozeduretan klausula

criterios de valoración objetivos y homogéneos que permitan analizarlas y clasificarlas de forma que puedan ordenarse y establecer una prelación en las solicitudes presentadas. Así mismo, la naturaleza de los proyectos apoyados en este programa de subvenciones exige un plazo extenso para la presentación de subvenciones y celeridad en la adjudicación para que puedan materializarse gracias a la subvención concedida.

Asimismo, se incorpora la perspectiva de género en la elaboración del presente decreto foral, en cumplimiento de la Ley 4/2005, de 18 de febrero para la igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres y del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en la Ley 4/2005. En este sentido, en la tramitación de este decreto foral se incorpora, como se ha indicado previamente, el Informe de Evaluación Previa del Impacto en función del género.

Igualmente se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral y lo dispuesto en la "Guía para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y





sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gidan (Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

IV

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak salbuetsirik daude aurretik Europako Batzordeari jakinarazi behar izatetik, hurrengo erregelamendua dela bide: 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamendua, Batzordearena, zeinak zehazten baitu de minimis laguntzei nola aplikatu behar zaizkien Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua; eta Batzordearen 2020ko uztailaren 2ko 2020/972 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez aldatzen baita 1407/2013 (EB) Erregelamendua, haren luzapenari dagokionez.

V

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1. artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko forudekretu bidez, aurretik zerbitzu juridikoak txostena emanda; eta Dirulaguntzen Erregelamendua onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak duela

relativas a otras políticas públicas en los procedimientos de subvenciones de la Diputación Foral de Bizkaia“ aprobada por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 16/2018, de 27 de febrero.

IV

Las subvenciones cuyo régimen se establece en estas bases están exceptuadas de la obligación de notificación previa a la Comisión Europea en virtud del Reglamento (UE) n.º 1407/2013, de la Comisión, de 18 de diciembre de 2013, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis y del Reglamento (UE) n.º 2020/972 de la Comisión de 2 de julio de 2020, por el que se modifica el Reglamento (UE) n.º 1407/2013 en lo que respecta a su prórroga.

V

El artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de la concesión de subvenciones mediante decreto foral, previo informe del servicio jurídico; y el artículo 41.1 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria, residiendo en el Consejo de Gobierno de la





haiek onesteko ahalmena.

Diputación Foral de Bizkaia la competencia para su aprobación.

Halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onets ditzan. Horrela, bada, kasu honetan Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari dagokio foru-dekretuaren proiektu hau proposatzea.

Asimismo, el artículo 39 k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia determina que compete a los diputados forales y a las diputadas forales proponer a la Diputación Foral de Bizkaia, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su Departamento. Así, en el presente caso corresponde a la diputada foral de promoción económica proponer este proyecto de decreto foral.

Hori dela bide, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2023ko urtarrilaren 10eko bileran aztertu ondoren, honako hau

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral de promoción económica, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia en su reunión de 10 de enero de 2023

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

Artikulu bakarra. *Oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.*

Artículo único. *Aprobación de bases reguladoras y convocatoria.*

2023 urterako Salgaien Errepideko Garraioa Modernizatzeko dirulaguntza-programako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira, eta honen ondoren doa haren testua.

Se aprueban las bases reguladoras y convocatoria del programa de subvenciones Modernización del Transporte de Mercancías por Carretera para el año 2023 cuyo texto se incluye a continuación.

Xedapen gehigarri bakarra. *Izaera*

Disposición adicional única. *Protección de*





pertsonaleko datuen babesa.

1. Interesdunak ematen dituen datuak foru-dekretu honetatik eratoritzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako xedapen hauetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 95/46/ EE Zuzentaraua (datuen babesari buruzko Erregelamendu orokorra) baliogabetzen duena; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.

2. Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik.

3. Edozein bide erabiliz eskaerak egin, eta interesdunek administrazio publikoen eskuetan dauden datu pertsonalak ematen badituzte, eskaeraren hartzailea den organoak beharrezko egiaztatze-lanak egiteko aukera izango du, dituen eskumenen barruan, datuak benetakoak direla egiaztatzeko.

4. Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko,

datos de carácter personal.

1. Los datos aportados por la persona interesada se utilizarán para la gestión de los procedimientos que se deriven del decreto foral, de acuerdo con lo previsto en el Reglamento (UE) n.º 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos) y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales, y garantía de derechos digitales que adapta y completa la normativa europea.

2. En ningún caso los referidos datos serán objeto de tratamiento o de cesión a terceras partes, si no es con el consentimiento inequívoco de la persona afectada, o en los supuestos previstos en la normativa antes indicada.

3. Cuando se formulen las solicitudes por cualquier medio en las que la persona interesada declare datos personales que obren en poder de las Administraciones Públicas, el órgano destinatario de la solicitud podrá efectuar en el ejercicio de sus competencias las verificaciones necesarias para comprobar la exactitud de los datos.

4. En cumplimiento de lo dispuesto en la citada normativa, la persona interesada podrá ejercer ante la responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión ("derecho al





ezerezteko (“ahaztua izateko eskubidea”), aurkaratzeko, haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakien xede ez izatekoa (barne harturik profilen sorrera) ere, baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein momentutan errebokatu ahal izango du emandako baimena. Horrez gain, eskubidea du erreklamazioa jartzeko Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzan. Gai honi buruzko informazio guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean dago eskuragarri, datuen babesari buruzko atalean (<https://web.bizkaia.eus/eu/datuen-babesa>).

olvido”), oposición, limitación del tratamiento, a la portabilidad de sus datos, y a no ser objeto de una decisión basada únicamente en el tratamiento automatizado, incluida la elaboración de perfiles, que produzca efectos jurídicos en él o le afecte significativamente de modo similar. De igual modo, podrá revocar el consentimiento prestado en cualquier momento. También dispone del derecho a presentar una reclamación ante la Autoridad de Control de Protección de Datos, pudiendo ampliar esta información en el apartado dedicado a la protección de datos de la página web institucional de la Diputación Foral de Bizkaia (<https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos>).

Azken xedapenetako lehena. *Ahalmenak eskuordetzea.*

1. Ahalmena ematen zaio Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, foru-dekretu honetan xedatzen dena garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan, baita dirulaguntzen emakida ere.

2. Halaber, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan jasotako kasua gertatzen bada foru-agindu bidez eskabideak aurkezteko epea luzatu edo ixteko.

Disposición final primera. *Delegación de facultades.*

1. Se faculta a la diputada foral de promoción económica para dictar cuantas disposiciones resulten procedentes en orden al desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente decreto foral, incluida la concesión de subvenciones.

2. Asimismo, se faculta a la diputada foral de promoción económica para acordar la ampliación o cierre del plazo de presentación de solicitudes, en caso de que se dé el supuesto previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o que se agote o incremente la dotación





presupuestaria.

3. Era berean, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio beste dirulaguntza-deialdi batzuk egiteko, aurrekontuko diru-hornidura amaitu ezean.

3. Asimismo, se faculta a la diputada foral de promoción económica para acordar la apertura de nuevas convocatorias de subvenciones para el supuesto de no agotarse las disponibilidades presupuestarias.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

El presente decreto foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el “Boletín Oficial de Bizkaia”.

Bilbon, 2023ko urtarrilaren 10ean

Dado en Bilbao, a 10 de enero de 2023

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua/La diputada foral de Promoción Económica. AINARA BASURKO URKIRI

La diputada foral de Promoción Económica.

Ahaldun Nagusia /El Diputado General. UNAI REMENTERIA MAIZ

SALGAIEN ERREPIDEKO GARRAIOA
MODERNIZATZEKO DIRULAGUNTZA-
PROGRAMA ARAUTZEN DUTEN
OINARRIAK ETA DEIALDIA 2023
URTERAKO

BASES REGULADORAS Y
CONVOCATORIA DEL PROGRAMA DE
SUBVENCIONES MODERNIZACIÓN DEL
TRANSPORTE DE MERCANCÍAS POR
CARRETERA PARA EL AÑO 2023.

Aurkibidea:

Índice:

I. TITULUA **Xedapen orokorrak**

TÍTULO I **Disposiciones generales**

1. oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*

Base 1. *Objetivo de la subvención.*





2. oinarria. *Definizioak*

Base 2. *Definiciones*

3. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunak.*

Base 3. *Beneficiarias de la subvención.*

4. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*

Base 4. *Hecho subvencionable.*

5. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.*

Base 5. *Gastos subvencionables.*

6. oinarria. *Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.*

Base 6 *Cuantía individualizada de las ayudas.*

7. oinarria. *Aurrekontuko zuzkidura.*

Base 7. *Dotación presupuestaria.*

II. TITULUA Araubide juridikoa

TÍTULO II Régimen jurídico

8. oinarria. *Araubide juridikoa.*

Base 8. *Régimen jurídico.*

9. oinarria. *Organo eskudunak eta erakunde laguntzailea.*

Base 9. *Órganos competentes y entidad colaboradora.*

10. oinarria. *Arau-haustek eta zehapenak.*

Base 10. *Infracciones y sanciones.*

11. oinarria. *Ez-betetzea eta dirulaguntza itzultzea.*

Base 11. *Incumplimiento y reintegro.*

12. oinarria. *Dirulaguntza pertsona edo erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea.*

Base 12. *Devolución de la subvención a iniciativa de la persona o entidad beneficiaria.*

III. TITULUA Dirulaguntzak emateko prozedura

TÍTULO III Procedimiento de concesión

13. oinarria. *Dirulaguntza eskabideak aurkezteko lekua, era eta epea, eta ondorengo izapideak.*

Base 13. *Lugar, forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes de ayuda y subsiguientes trámites.*

14. oinarria. *Eskabidea egiteko behar den dokumentazioa.*

Base 14. *Documentación necesaria para la solicitud.*

15. oinarria. *Eskabidea zuzentzea edo hobetzea.*

Base 15. *Subsanación o mejora de la solicitud.*





16. oinarria *Dirulaguntza emateko prozedura.*

Base 16. *Procedimiento de concesión.*

17. oinarria. *Ebazpena.*

Base 17. *Resolución.*

18. oinarria. *Errekurtoak.*

Base 18. *Recursos.*

19. oinarria. *Dirulaguntzari uko egitea.*

Base 19. *Renuncia a la subvención.*

20. oinarria. *Emandako dirulaguntzen publizitatea.*

Base 20. *Publicidad de las subvenciones concedidas.*

21. oinarria. *Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea.*

Base 21. *Difusión de la subvención concedida por la persona o entidad beneficiaria.*

22. oinarria. *Jakinarazpen elektronikoa.*

Base 22. *Notificación electrónica.*

IV. TITULUA **Gauzatzea, justifikatzea eta kontrola**

TÍTULO IV **Ejecución, justificación y control**

23. oinarria. *Gauzatzeko epea.*

Base 23. *Plazo de ejecución.*

24. oinarria. *Azpikcontratazioaren baldintzak.*

Base 24. *Condiciones de subcontratación.*

25. oinarria. *Dirulaguntzak justifikatzea.*

Base 25. *Justificación de las subvenciones.*

26. oinarria. *Dirulaguntza ordaintzea.*

Base 26. *Pago de la subvención.*

27. oinarria. *Laguntzak metatzea.*

Base 27. *Acumulación de ayudas.*

28. oinarria *Laguntzen bateragarritasuna.*

Base 28. *Compatibilidad de las ayudas.*

29. oinarria. *Pertsona edo erakunde onuradunen beste betebeharrak.*

Base 29. *Otras obligaciones de las personas o entidades beneficiarias.*

I. TITULUA

TÍTULO I

Xedapen orokorrak

Disposiciones generales





1. oinarria. *Dirulaguntzaren helburua.*

Dirulaguntzen programa honen bidez, salgaien errepide bidezko garraioaren sektoreak jasangarritasunaren, digitalizazioaren eta segurtasunaren gizarte-erronkei egiten dien ekarpena hobetzeko helburua lortu nahi da, sektorearen lehiarako gaitasuna handitzearekin batera.

Base 1. *Objetivo de la subvención.*

Mediante este programa de subvenciones se pretende alcanzar el objetivo de mejorar la contribución del sector del transporte de mercancías por carreteras a los retos sociales de la sostenibilidad, digitalización y seguridad, a la vez que se incrementa su capacidad competitiva.

2. oinarria. *Definizioak.*

Oinarri eta deialdi hauen ondorioetarako, honela ulertu behar da:

1. «Langile autonomoak»: irabazi asmoko jarduera ekonomiko edo profesional bat, ohiko moduan, modu pertsonalean, zuzenean, norberaren kontura eta beste pertsona baten zuzendaritza- eta antolaketa-eremutik kanpo egiten duten gizabanakoak, Langile Autonomoaren Estatutuari buruzko uztailaren 11ko 20/2007 Legeak arautzen dituen, besteren konturako langileei okupazioa eman edo ez.

2. «Berezko nortasun juridikoa daukan enpresa»: bezeroek eskatzen dituzten ondasunak edo zerbitzuak ekoizten edo ematen dituen erakundea; jarduera horretatik etekin ekonomiko bat lortzen duena, berez nortasun juridikoa duena, hura sortu zuten, kapital soziala duten edo bertan lan egiten duten pertsonak alde batera utzita. Halakotzat hartuko dira sozietate anonimoak, erantzukizun mugatuko sozietateak, komanditako

Base 2. *Definiciones.*

A los efectos de las presentes bases y convocatoria se entenderá por:

1. «Personas trabajadoras autónomas»: personas físicas que realicen de forma habitual, personal, directa, por cuenta propia y fuera del ámbito de dirección y organización de otra persona, una actividad económica o profesional a título lucrativo, den o no ocupación a trabajadores por cuenta ajena, regidos por la Ley 20/2007, de 11 de julio, del Estatuto del trabajo autónomo.

2. «Empresa con personalidad jurídica propia»: organización que se dedica a la producción o prestación de bienes o servicios que son demandados por clientes; obteniendo de esta actividad un rédito económico, que en sí misma tiene personalidad jurídica independientemente de las personas que la fundaron, poseen su capital social o desarrollan en ellas su trabajo. Se considerarán como tal las sociedades anónimas, sociedades de





sozietate sinpleak edo akziozkoak, kooperatiba-sozietateak, merkataritza-forma duten sozietate zibilak eta interes ekonomikoko elkarteak.

responsabilidad limitada, sociedades comanditarias simples o por acciones, sociedades cooperativas, sociedades civiles con forma mercantil y agrupaciones de interés económico.

3. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunak.*

1. Langile autonomoak eta berezko nortasun juridikoa daukaten enpresak izan daitezke dirulaguntzen onuradunak.

2. Aurreko atalean adierazitako pertsonak eta erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko:

a) Sozietatearen helbidea, pertsona juridikoen kasuan, eta zerga-helbidea Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

b) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren matrikulan alta emanda egotea 1722000 epigrafean – Errepideko Salgaien Garraioa.

c) Salgaiak ibilgailuetan edo ibilgailu-multzoetan garraiatzeko gaitzen duen indarreko baimen baten titularra izatea, baldin eta baimendutako gehieneko masa 3,5 tonatik gorakoa bada (MDPE kodearekin identifikatuta badago), Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko uztailaren 30eko 16/1987 Legearen arabera.

d) Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak.

Base 3. *Beneficiarias de la subvención.*

1. Podrán acceder a la consideración de beneficiarias de las subvenciones las personas trabajadoras autónomas y empresas con personalidad jurídica propia.

2. Las personas y entidades indicadas en el apartado anterior deberán cumplir los siguientes requisitos para obtener la condición de beneficiaria de la subvención:

a) Tener su domicilio social, en el caso de personas jurídicas, y fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Estar dada de alta en la matrícula del Impuesto sobre Actividades Económicas en el epígrafe 1722000 – Transporte de Mercancías por Carretera.

c) Ser titular de una autorización en vigor habilitante para el transporte público de mercancías en vehículos o conjuntos de vehículos que puedan superar las 3,5 toneladas de masa máxima autorizada (identificada con la clave MDPE), conforme a la Ley 16/1987, de 30 de julio, de Ordenación de los Transportes Terrestres.

d) Encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de





subvenciones.

e) Ez egotea Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren (aurrerantzean 5/2005 Foru Araua) 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretakoa batean ere).

e) No encontrarse incurso en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral (en adelante Norma Foral 5/2005).

Baldintza guztiak eskabidea aurkezten den egunean bete beharko dira, eta dirulaguntza esleitu eta ordaindu arte mantendu beharko dira.

Todos los requisitos deberán cumplirse a fecha de presentación de la solicitud y mantenerse hasta el momento de la concesión y pago.

3. Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, ezta onuradun izan ere, honako hauek:

3. No podrán concurrir a la presente convocatoria, ni resultar beneficiarias:

a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan (aurrerantzean 4/2018 Foru Araua) eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen 21.bis.2 artikuluan (aurrerantzean 4/2005 Legea) adierazitako egoeretakoa batean dauden pertsona fisiko eta juridikoak, publikoak zein pribatuak.

a) Las personas físicas y jurídicas, públicas o privadas, que están en alguna de las situaciones indicadas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres (en adelante Norma Foral 4/2018) y en alguna de las indicadas en el artículo 21.bis.2 de la Ley 4/2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las Mujeres (en adelante Ley 4/2005).

b) Pertsona fisikoak eta juridikoak, publikoak edo pribatuak, administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuak izan direnak Tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik.

b) Las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas sancionadas por resolución administrativa firme por alguna de las infracciones calificadas como muy graves, en los términos y plazos previstos en el Título IV de la Ley 15/2022, de 12 de julio, integral para la igualdad de trato y la no discriminación.





d) Sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak.

c) Las Sociedades Públicas y Entidades de Derecho Público.

d) Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpoko eta barne-merkatuarekin bateraezina dela, laguntza hori berreskuratzeko agindu baten menpe dauden pertsonak edo erakundeak.

d) Las persona o entidades que estén sujetas a una orden de recuperación de ayudas pendiente tras una decisión previa de la Comisión Europea que haya declarado una ayuda ilegal e incompatible con el mercado interior.

e) Jarduera armen ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketaren arloan egiten dutenek, 14/2007 Legeak, 2007ko abenduaren 28koak, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarenak, xedatutakoaren arabera.

e) Quienes desarrollen actividad en los ámbitos de producción, comercialización y financiación de armamento, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 14/2007, de 28 de diciembre, de Carta de Justicia y Solidaridad con los países empobrecidos.

4. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*

Base 4. *Hecho subvencionable.*

1. Honako hauek joko dira diruz laguntzeko egitatzat: salgaien garraio publikoko baimendutako ibilgailuak, hain zuzen, gehieneko masa 3,5 tonatik gorakoak, modernizatzeko jarduketak, segurtasunaren, eraginkortasun energetikoaren eta ingurune digitaletara egokitzearen arloan.

1. Tendrá la consideración de hecho subvencionable las actuaciones de modernización de vehículos de transporte público de mercancías que puedan superar las 3,5 toneladas de masa máxima autorizada, en el campo de la seguridad, eficiencia energética y la adaptación a entornos digitales, referidas a continuación:

a) Gurrupilak ordezteak. Gurrupilek gutxieneko baldintza hauek bete beharko dituzte, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko maiatzaren 25eko 2020/740 (EB) Erregelamenduaren arabera (erregelamendu hori pneumatikoen etiketei buruzkoa da, erregai-kontsumoaren eta beste parametro batzuen eraginkortasunari dagokionez), 2017/1369 (EB)

a) Sustitución de ruedas. Las ruedas deberán cumplir los siguientes requisitos mínimos, conforme al Reglamento (UE) 2020/740 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 25 de mayo de 2020, relativo al etiquetado de los neumáticos en relación con la eficiencia en términos de consumo de carburante y otros parámetros, por el que se modifica el Reglamento (UE) 2017/1369 y se deroga el





Erregelamendua aldatzen duena eta 1222/2009 (EE) Erregelamendua indargabetzen duena:

- 1) Efizientzia-mota, erregai-kontsumoari dagokionez: C
- 2) Gainazal bustiko itsaspen mota: C
- 3) Kanpoko errodadurako zarataren neurtutako mota eta balioa: B

b) Ibilgailuen aerodinamika hobetzen duten elementuak (spoilerrak, flap-ak, deflaktoreak).

c) Ibilgailuaren segurtasun-elementuak, hala nola gurgipen presioa detektatzeko sistemak, gidariaren alkohola hartzeagatik blokeo-sistemak (alcohol-lock), gidatze-sistemak (erreiaren irteera detektatzea, gidatze-dinamika erregistratzen duten kamerak – dash cam-), ikusgarritasuna edo maniobragarritasuna hobetzeko sistemak gidatzean (puntuitsuak eta atzealde ikustea), talkak arintzeko sistemak (hurbiltasuna detektatzeko sentsoareak eta radarrak), nekea kontrolatzeko sistemak, atoiaren krokadura egiaztatze sistemak (bosgarren gurgipila), artaziarena saihesteko sistemak, istripuen erregistratzaileak, suteak detektatzeko eta autoitxaltzeko sistemak edo larrialdi-deien edo abisu automatikoen sistemak kontrol-postura, istripua edo larrialdiak gertatuz gero.

d) Zamaketaren segurtasun-elementuak, Errepideko Garraioaren Nazioarteko Batasunaren errepideko garraioan karga modu seguruan zamatze jardunbide egokien kodearen arabera (zingilak,

Reglamento (CE) nº 1222/2009:

- 1.º Clase de eficiencia en términos de consumo de carburante: C
- 2.º Clase de adherencia en superficie mojada: C
- 3.º Clase y valor medido de ruido de rodadura exterior: B

b) Elementos que mejoren la aerodinámica de los vehículos (spoilers, flaps, deflactores...).

c) Elementos de seguridad del vehículo tales como sistemas de detección de presión de ruedas, sistemas de bloqueo por ingesta de alcohol de la persona conductora (alcohol-lock), sistemas de guiado (detección de salida de carril, cámaras que registran la dinámica de conducción -dash cam-...), sistemas para mejorar la visibilidad o la maniobrabilidad en la conducción (visión de puntos ciegos y parte trasera...), sistemas para mitigar colisiones (sensores y radares de detección de proximidad...), sistemas de control de fatiga, sistemas de verificación de enganche de remolque (quinta rueda), sistemas antitijera, registradores de accidentes, sistemas de detección y auto extinguido de incendios o sistemas de llamada de emergencia o de aviso automático al puesto de control en caso de accidente o emergencias.

d) Elementos de seguridad de la estiba, conforme al “Código de buenas prácticas para la estiba segura de la carga en el transporte por carretera” de la Unión Internacional de Transporte por Carretera





uhalak, kateak, tenkagailuak, olanak, falkak, sehaskak, estribuak, astoak, elementu irristagaitzak, betegarriak, babesleak). Elementu lagungarriak bakarrik lagundu ahal izango dira diruz, eta ez atoa osatzen duten elementuak (karrozeria, iraulkiak, edukiontziak, zisternak).

e) Ofimatika sartzea ibilgailuaren kabinan, garraio-agentzien plataformekin, edukiontzi-agentziekin, salgaien jatorria/helmuga industria-instalazioekin konektatzeko. Eremu horretan, ordenagailu eramangarri edo tablet bat eta ibilgailu bakoitzeko eskaner bat soilik hartuko dira diruz laguntzeko modukotzat. Ez dira diruz lagunduko bestelako elementuak (konektibitate-soluzioak, telefono mugikorak, pantailak).

2. 3,5 tonatik gorako gehieneko masa izan dezaketen ibilgailuetan edo ibilgailu-taldeetan salgaien garraio publikoa egiteko eskatzailearen gaikuntza-baimenean adierazten diren ibilgailuetan ez besteetan egindako jarduketak soilik izango dira diruz laguntzeko modukoak.

3. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango sexua edo 4/2005 Legearen 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazio faktoreak direla-eta diskriminatzailea den jarduera.

4. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango 15/2022 Legearen IV. tituluaren arau-hauste gisa kalifikatutako praktikak erasotzen, suspertzen edo onartzen dituen jarduera edo xede

(cinchas, correas, cadenas, tensores, lonas, cuñas, cunas, estribos, caballetes, elementos antideslizantes, rellenos, protectores...). Serán subvencionables únicamente los elementos auxiliares, y no los elementos integrantes del remolque (carrocería, volquetes, contenedores, cisternas...).

e) Incorporación de ofimática en cabina del vehículo para conexión con plataformas de agencias de transporte, agencias de contenedores, plantas industriales origen/destino de mercancía... En este ámbito se considerará subvencionable únicamente un ordenador portátil o tablet y un escáner por vehículo. No serán subvencionables otros elementos de ningún tipo (soluciones de conectividad, teléfonos móviles, pantallas...).

2. Se considerarán subvencionables únicamente las actuaciones sobre vehículos integrantes de la autorización habilitante de la solicitante para el transporte público de mercancías en vehículos o conjuntos de vehículos que puedan superar las 3,5 toneladas de masa máxima.

3. No tendrá la consideración de hecho subvencionable cualquier actividad que sea discriminatoria por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el art. 3.1 de la Ley 4/2005.

4. No tendrá la consideración de hecho subvencionable cualquier actividad o cumplimiento de finalidad que atente, aliente o tolere prácticas calificadas como infracciones en el Título IV de la Ley





betetzea.

15/2022.

5. Honako jarduera hauek ez dira diruz lagunduko:

5. No se considerarán como hecho subvencionable las siguientes actividades:

a) Definizioan gabezia argiak dauzkaten jarduketak.

a) Actuaciones que presenten deficiencias nítidas en su definición.

b) Bizkaiko Foru Aldundiaren bestelako programa edo jarduketa arloen barruan sar daitezkeen jarduketak.

b) Las actuaciones que puedan estar comprendidas dentro de otros planes, programas o áreas de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

c) Ekonomia Sustatzeko Sailaren helburuekin bat ez datozen edota haren eskuduntzen eremuan sartzen ez diren jarduerak.

c) Las actividades que no sean coherentes con los objetivos del Departamento de Promoción Económica y/o no se encuadren dentro del ámbito de sus competencias.

5. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.*

Base 5. *Gastos subvencionables.*

1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan egin diren beharrezko gastuak, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira:

1. Se considerarán gastos subvencionables, aquellos que, siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, se hayan ejecutado en plazo, sean necesarios y respondan a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad.

2. Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartuko dira eskatzaileaz kanpoko enpresek ibilgailuen gainean diruz lagundu daitezkeen egitateetako bat edo batzuk gauzatzeko egindako lanen gastuak.

2. Se considerarán gastos subvencionables los gastos de trabajos realizados por empresas externas a la solicitante para ejecutar sobre los vehículos alguna o algunas de las actuaciones que se consideran hecho subvencionable.

3. Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzeko, egindako jarduketei buruzko fakturek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

3. Para poder ser considerados gastos subvencionables, las facturas relativas a las actuaciones realizadas deberán cumplir los siguientes requisitos:





a) dirulaguntzaren eskatzailearen izenean egotea eta hark ordainduta egotea. a) estar a nombre de la solicitante de la subvención y haber sido abonadas por ésta.

b) 2023ko urtarilaren 1etik dirulaguntza eskatu arte gauzatutako eta ordaindutako jarduketei egokitzea, eta hori egiaztatzeko faktura jaulkitzen den egunak eta ordainketa egunak epe horren barruan egon beharko dute. b) corresponder a actuaciones ejecutadas y pagadas entre el 1 de enero de 2023 y la fecha de solicitud de la subvención; para ello tanto la fecha de emisión de la factura como la fecha de su abono deberán estar comprendidas en dicho periodo.

c) jarduketaren xede den ibilgailuaren edo ibilgailuen matrikula adieraztea, ibilgailuetan egindako aldaketak badira. c) indicar la matrícula del vehículo o vehículos sobre los que se realiza la actuación, en el caso de modificaciones sobre los vehículos.

